



MUSIKA

Kolorea eta sentsibilitatea



BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA

BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA. MENDELSSOHN ETA POULENC-EN LANAK
ZUZENDARIA: JOHANNES DEBUS. BAKARLARIA: SOYOUNG YOON (BIOLINA).

EUSKALDUNA JAUREGIAN (BILBO), MARTXOAREN 19AN.

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Bilbao Orkestra Sinfonikoak arintasuna, entretenimendua eta lan ona ekartzen jakin du Euskalduna Jauregian martxoaren 18an eta 19an egindako kontzertuetan. Baina, kontuz, arinkeriaz eta entretenimenduz hitz egiten dugunean, ez dugu azalgeria esan nahi, ezta gutxiago ere.

Aitzitik, aztertuko ditugun lanei balioa eman nahi diegu. Zer lan mota dira? Bada, edertasunez eta konposizio-ezaugarri konplexuz betetako musika klasikoko lanak, eta hala ere, "kolonia freskoaren" aura dutenak, ageriko sinpletasuna dutenak. Era guztietako entzuleei gustatzen zaizkien lanak, baita musika klasikoaren ulertzen ez dutela esaten dutenei ere.

Kontzertu honetan interpretatu ziren bi obrak, azaldutako bertuteez gain, berritzaile eta ausartak izan ziren bere

garaian, eta aldaketa handi samarra izan zen bakoitza bere generoan.

Ausartuko nintzateke esatera ez dagoela biolin solistarik Mendelssohnen kontzertua interpretatzen ez duenik. Biolinaren errepertorioan funtsezko lana da, oso ederra. Bestalde, erromantizismoko biolinaren lehen kontzertuetako bat da. Obra honek berrikuntzak ekarri bazituen ere eta garai hartako entzuleak harritu bazituen ere, kontzertu honen arrakasta erabatekoa izan zen estreinatua zenetik.

Bilbao Orkestra Sinfonikoak Soyoung Yoon bakarlariarekin batera eskaini zizun bertsioa perfektionista eta kolorez eta ñabarduraz bete izan zen. Nazioarteko lehiaketa garrantzitsuetan saritua izan den biolinista korear honek bere teknika aparta, eta aldi berean, biolinaren aukera tekniko-espresiboak erakus-

teko duen sentsibilitate eta erraztasun bikaina erakutsi zituen.

Bilboko Orkestrak oparitu zizun bigarren obra Francis Poulenc-en *Sinfonietta* ederra izan zen. Ez da oso lan ezaguna, baina bai zirraragarria, publikoarengana oso modu zuzenean iristen dena. *Sinfonietta* 1947an konposatu zen eta hurrengo urtean Londresen estreinatua zen Roger Desormière-ren gidaritzapean. Musika arina da, batzuetan satirikoa ere bai, eta herri birez eta dantza erritmoez beterikoa. Musika hau konpositorearen xarmaz eta asmamenaz beteta dago eta kontzertu aretoetan maizago entzutea merezi du, dudarik gabe.

Bilboko Sinfonikoak, Johannes Debuss-en gidaritzapean, interpretazio txinpartaduna eskaini zuen, ukitu naif batekin, publikoaren poltsikoan sartu zue-na. ●